



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-09-21eko PRESAZKO EZOHICO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko irailaren hogeita batean, arratsaldeko 18:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Itziar Arkonada Lizarraga andrea, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du.: Inork ere ez.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

BILKURAREN PREMIAZKO IZAERA BERRESTEA.

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46.2 artikuluko b idazlerroan araututakoa kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Bakarra.- Nahikoa arrazoi badaudela kontsideratuz, bilkuraren presazko izaera berrestea.

BIGARRENGO GAIA

**BEIZAMAKO "OSTATU ZAHARRA" TABERNAREN USTIAPEN
ESKUBIDEAREN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA EGITEA.**

Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espeditentia onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen.

Lizitazio-iragarkia 2009ko martxoaren 4an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lehiakidek beren proposamenak aurkez zituzten. Inolako proposamenik jaso ezenez, lizitazio hau hutsik deklaratu zuen 2009ko apirilaren 29n egindako udalbatzak.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ondoren, Beizamako udalerrarentzat gisa honetako azpiegitura bat edukitzeak suposatzen duenaren jakitun, Udalak, zegokion jardunbide negoziatuari hasiera eman zion, eta horretaz gain, interesdun potentzialen bila hainbat kontaktu egin zituen inguruko ostalaritza eta sukaldaritza eskolarekin batetik eta inguruko egunkarietan (hitza) prozesuaren berri emanez. Guzti honek bere fruitua eman zuen, hiru interesdun azaldu ziren eta, Udalak, prozedura irekian erabilitako baldintza orrietan jasotako klausula berdinetan oinarrituz proposamenak aurkezteko epea eman zien, azken eguna 2009ko maiatzaren 22a izango zelarik hain zuzen ere.

2009ko maiatzaren 27an egindako plenoan, udal korporazioak, Beizamako ostatu zaharra tabernaren ustiapen eskubidea jardunbide negoziatu bidez esleitzea presazko eta premiazkoa adierazi eta jardunbide negoziatu bidez esleitzeko espedientea ireki ondoren, aurkeztutako proposamenak aztertu eta baloratu ondoren, Gorka Igartua eta Markel Sanz lizitatzailleek aurkezturiko proposamena hautatu zuen.

Erabaki hau 2009ko ekainaren 11n jakinarazi zitzaion esleipendunei, bere aurka inolako errekurtsorik aurkeztu ez zutelarik.

Ikusirik, 2009ko irailaren 4n aurkezturiko idazkian, emakidadunak esleipena amaitutzat ematea eskatu zuela.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko irailaren 14an egindako ezohiko bilkuran, udal korporazioak erabaki zuela, besteak beste, egindako esleipena eta kontratua deuseztatzeko jardunbideari hasiera ematea, Gorka Igartua eta Markel Sanz-ek kontratuaren betebeharrak nagusiak ez betetzeagatik.

Ikusirik, taberna esleitzeko jardunbidea presazkoa dela eta herritarrak zerbitzurik gabe jarraitu ezin dutela kontuan hartuz.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea, jardunbide berean proposamena aurkeztua duen Luxio Aizpuru Azpiazuri egitea, behin behineko izaeraz.

Bigarrena.- Erabaki honen berri izan ondoren, 15 eguneko epea ematen zaio, behin betiko bermea osatzeko, aseguru poliza aurkezteko, Aterpetxearen kudeatze eta ustiakuntza proiektu bat aurkezteko eta baldintza zehatzen agirian jasotako dokumentazio osoa Udalean aurkezteko.

Hirugarrena.- Aipatutako epea bete eta beharrezko dokumentazioa atxiki



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ondoren, esleipena behin betikoa bihurtuko da gainontzeko izapide edo erabaki gehigarriren beharrik gabe.

Laugarrena.- Esleipena behin betiko izaera duenetik, guztia formalizatuko duen kontratua 10 egunetako epean sinatu beharko da.

Bosgarrena.- Jakinaraztea, berak aurkeztutako proiektutik ezingo duela inongo rally edo lasterketarik antolatu.

Seigarrena.- Bizitzeko, etxebizitza erabili beharko duela jakinaraztea, aterpetxea esplotatzeko soilik erabilia izango delarik

Zazpigarrena.-

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

**LAUGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMAKO BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA
AUKERATZEA.**

Euskadiko Justizia Epaitegi Gorenetik 2009ko ekainaren bederatzian jasotako adierazpenaren aurrean, Udal honek Beizamako bake epaile titularra eta haren ordezkoa hautatzeko jardunbideari hasiera eman zion. Asmo honekin, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2009ko ekainaren hemezortzikoan hain zuzen ere (112 zenbakia).

Epea igaro ondoren eskaera bakarra aurkeztu ez denez, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Lehena.- Beizamako etxe guztietara zabaltzea iragarki honen berri.

Bigarrena.- Irailaren hamaika arteko epea ematea interesdun orok izena eman dezan.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

**BOSGARRENGO GAIA
GALDERA ETA ESKAERAK**



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

SOASU MENDIAREN EGUR USTIAKETA KONTRATUAREN DEUSEZTATZEA.

Udal honek 2007ko azaroaren 9an eginiko udalbatzan, Soasu Mendiaren egur ustiaketa Larrano Basolana SArri esleitu zion, ondoren, 2007ko abenduaren 12an aipatutako esleipenari dagokion kontratua sinatu zelarik.

Esleipena arautzen duten baldintza juridiko, ekonomiko eta administratibo berezien orriek eta kontratuaren klausulek agindutakoaren arabera, 2008ko ekainaren 12an egina beharko luke bigarrenko ordainketa, 43.739,48.-€ko ordainketa hain zuzen ere. Azkeneko ordainketa, 2008ko abenduaren 12an egin beharrekoa zen, beste 43.739,48.-€, eta une horretan amaitu behar zen kontratua.

Ondoren, eta esleipendunari egozgarriak diren hainbat akats eta urratzeren ondoren, Udal honek 2009ko otsailaren 25ean eginiko udalbatzan erabaki zuen, besteen artean, Soasu mendiaren egur ustiaketa kontratuaren deuseztatze prozedurari hasiera ematea, ondoren, kontratuaren esleipendunari dagokion jakinerazpena egin zitzaionalarik.

Aldi berean, espedientea Aholku Batzorde Juridikoari igorri zitzaion beraien iritzia eskatuz. Erakunde honetatik igorritako erantzunean adostasuna agertzen du Beizamako Udalaren eginbideen aurrean.

Ikusirik idazkariaren txostena, aurreko guztia kontuan hartuz eta indarrean dagoen araudia, besteak beste, Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa ebazten du

Lehena.- Soasu mendiaren egur ustiaketa kontratua suntsiaraztea.

Bigarrena.- Esleipendunak jarritako bermea inkautatzea.

Hirugarrena.- Kontratuaren prezioa erreklamatzeko esleipendunari likidazio gisa, kopuru honi dagozkion legezko interesak gehituko zaizkiolarik.

Laugarrena.- Aprobetxamendu lekura eta bertan metatutako materialera hurbiltzeko debekua ezartzea.

Bosgarrena.- Egindako kalteak konpondu eta aurreko egoerara itzultzeko lanek suposatutako duten kostua erreklamatzeko (dagokion tekniko eskudunek egingo dute balorazioa).

Seigarrena.- Euskal Gobernuak kontratisten erregistro ofizialari premiamenduzko eskea egitea, Larrano Basolanak SLri administrazio publikoarekin kontratatze debekua ezartzeko.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Zazpigarrena.- Esleipendunari 10 egunetako epea ematea, honakoa jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, egoki deritzon alegazioak aurkez ditzan. Alegaziorik egin ezean, likidazio proposamen hau onartutzat emana izango da.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

ESKOLA BERRIKO AKURAPEN KONTRATUA AMAITZEA

2007ko irailaren 12an, 16/2007 alkatetza ebazpenaren bidez Udal honek erabaki zuen David Bernabe Navascues Ripalda jaunari Beizamako eskola etxea ezkerra alokatzea, horretarako errendamendu kontratu bat eginez bertan baldintzak zehaztuz.

Kontratu honen bigaren baldintzak jasotzen duenez, kontratu honen prezioa 200€urokoa izango da hilean. Diru kantitate hau hileko lehen hamar egunetan ingresatua izango da Udalaren kontu korrontean.

Bestalde, hirugarren baldintzak jasotzen duenez, kontratu honen iraupena 12 hilabetekoa izango da kontratu hau sinatzen denetik kontatzen hasita. Kasu guztietan, kontratuaren indarraldia luzatu ahal izango zen Beizamako Udal planeamenduko arau subsidiarioetako R-21, L-2 eta V-2 eremuan esleitutako etxebizitza amaitu arte, lehen erabilerara jasotzen duenean.

Ikusirik, kontratuaren ordainketak ez direla egin baldintzetan jaso izan den eran, atzerapen ugari izan direla, bai eta ez ordaintzeak.

Kontuan hartuz, bi mila bederatziko maiatzaren hogeita biau Udal honek Etorlur SAUk eskatutako lehen erabilerako baimena eman zuela.

Honenbestez, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Lehena.- David Bernabe Navascues Ripalda jaunari eskola etxe ezkerra, udal ondasuna, uzteko errekeritzea eta honetarako 10 egunetako epea ematea, honakoa jakinarazi biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.- Zor dituenak ordainaraztea.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 20:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.